

2024ko otsailaren 15ean, Eusko Legebiltzarrak babes politiko eta sozial zabalarekin onartu zuen Lankidetzarako eta Elkartasunerako Legea.

Lege horrekin, euskal gizarteak eta erakundeak esparru berri batez hornitzen dira, giza garapenaren, justizia globalaren, demokraziaren, giza eskubideen eta mundu baketsu baten alde modu irmoan eta koordinatuan jarduteko.



Gizateriak aurre egin beharreko erronka globalak ugariak eta konplexuak dira –pobrezia, desparekotasunak, gerrak edo krisi klimatikoa, gutxi batzuk aipatzearren-. Gainera, ez da ahaztu behar arazo horiek gehiago eragiten dietela Hegoko lurraldeetan bizi diren biztanleei, eta, bereziki, neskei eta emakumeei.

Euskadik ibilbide solidario luzea eta aitortua du. Horregatik, legeak dei egiten die euskal gizarte osoari, gizarte-erakundeei, hedabideei, ikerketa-zentroei eta unibertsitatei eta euskal administrazio guztiei, munduko giza garapenaren eta justiziaren aldeko konpromisoa har dezaten.

LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO LEGEA



LEGEAREN ATALAK

Legeak bost kapitulu, hemeretzi artikulua, xedapen gehigarri bat, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ditu. Berrikuntza nagusiak honako hauek dira:

- Euskal sektore publiko osoari eta gainerako eragileei dei egiten die, **politika solidarioaren alde**. Horretarako, aplikazio-eremua euskal administrazio publikoaren hiru mailetara zabaltzen du –bakoitzaren eskumenen esparruan, eta horien autonomia eta antolaketa errespetatzen ditu–.

- Euskal lankidetzako eta elkartasuneko eragileen ibilbidearen, konpromisoaren eta jakituriaren garrantzia azpimarratzen du; bereziki, Garapenerako GKEena. Gainera, sustatu nahi ditu aliantza zabalak pertsonen, erakundeen eta elkarteen –sozialen zein pribatuena– artean, beren berezitasunetik ekarpenak egin ditzaten.

- Euskal lankidetzaren publikoaren antolatzeko **arkitektura instituzional berria finkatzen du**. Horretarako, euskal sektore publikoaren funtzioak eta eskuduntzak zehazten ditu; besteak beste, erakundeen arteko lankidetzan, garapen jasangarriko politiken koherentzian eta kontu ematean. Era berean, euskal lankidetzaren kontsultarako eta koordinazioarako bi organoak arautzen ditu: Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordea.

- Euskal lankidetzarako eta elkartasunerako **politika publikoaren garrantzia areagotu eta haren eraginkortasuna hobetu nahi du**, besteak beste, Euskal Lankidetzaren eta Elkartasunaren Egoerari buruzko Txostenarekin. Txosten horrek bost urtean behin legean bertan hartutako konpromisoen beteetze maila aztertuko du.

- Euskal lankidetzaren **planifikatzeko mekanismo eta jarduteko modalitate berriak zehazten ditu**, eta lankidetzaren publikoaren tresnak elkarlanean aritzen diren herrialde eta herrietako errealitateetara egokitu behar direla adierazten du. Helburuak lortzeko, beharrezkoa da nazioarteko akordio eta estandarrei erreparatzea, bai eta jardura berritzaileak gauzatu ere. Azken horiek eraginkorrak izan behar dira eta tokiko eraldaketa iraunkorrak sustatu behar dituzte, dimentsio globalarekiko lotura galdu gabe.

- Euskal lankidetzaren **politika gauzatzeko baliabideak eta gaitasunak sendotzen ditu**. Horretarako, % 0,7arekiko konpromisoa berresten du, eta aintzat hartzen ditu lankidetzaren eta elkartasun-jarduketan parte hartzen duten pertsonak –kooperante profesionalak, prestakuntzaldian daudenak, boluntarioak eta euskal sektore publikoko langileak–.

- Ezagutzaren, ikaskuntzaren eta komunikazioaren **kudeaketa hobetzeko aurreikuspenak ezartzen ditu**. Landuko ditugun eraldaketak errealitate aldakorra sakonki ulertzea eskatzen dute, herrien jakintzak babestea, irtenbide berritzaile eta iraunkorrak bilatzea, eta, batez ere, gizarte osoaren konpromisoa eta partaidetza solidarioa.

PROZESU PARTEHARTZAILEA

Honako lege honekin lortutako adostasuna 2021ean hasitako prozesuaren isla da. Ibilbide horretan, askotariko eragileen parte-hartzea sustatu da, hala nola euskal administrazio publikoak zein estatukoak, Euskadiko GGK Ean Koordinakundea, akademia, zentro teknologikoak, erakunde feministak, LGTBI+ kolektiboak, pertsona migratuen elkarteak, Nazio Batuetako agenziak edo hezkuntza arloko eragileak.

Kontsulta ezazu legea osorik

